

GOTZON GARATE ETA MARXISMOA-ren gainean zertzelada batzuk

“Euskal Pentsamendu Kritikoa XX.mendean” gradu-ondorako lana.

Elgoibar 2013 – 06 – 28

Iñaki Odriozola Sustaeta

AURKIBIDEA

1. Sarrera -----	3
2. Testuingurua	
1. Testuinguru orokorra -----	6
2. Euskal Herriko testuingurua	
a. EHko testuingurua oro har -----	6
i. Belaunaldi eraldatzaile berria -----	6
b. EHko testuinguruaren ageriko adierazpenak -----	8
c. ENAM-en sorrera, ETAren lehen idatziak eta bilakaera -----	10
.	
3. Gotzon Garateren biografia:	
1. Formakuntza intelektuala -----	14
2. Gotzon Garate Gaztea -----	15
4. Azterketa ildoak eta justifikazioak -----	18
5. Marxen izaeraren azterketa psikologikoa	
1. Marxen Nortasuna -----	20
a. Senideekiko hoztasuna	
b. Adiskidetasun petrala	
c. Bihotz eta sentimendu gabea	
d. Nolabaiteko moralekoa	
e. Erlijjiorik gabea	
f. Mesianikoa	
2. Marxen berezitasun biografiko-soziala -----	24
a. Judutartasuna	
b. Aberrigabetasuna	
6. Ondorioak -----	28
7. Anotazioak -----	29
8. Bibliografia -----	29

Aurkezpena (*.PDF artxiboan doa)

1.- SARRERA

Lan honen helburua, Gotzon Garate, idazle eta pentsalari elgoibartarraren argazki partzial eta mugatu bat egitea da, hau da, hain zuzen ere, bere gaztetako filosofiari buruzko ikerketaren inguruan.

Gotzon M. Garate, Elgoibartarra, 1934an jaioa, ezaguna izan da azken hamarkadetan, abertzale eta euskaltzale handia izan delako.

Bere abertzaletasuna garbi azaldu zuen, eta lotsarik gabe, independentziaren aldeko hautua egin, beti ere, azpimarratu nahi zuelako, euskararekiko zuen ardura.

Izatez, Gotzon Garaterentzat, independentzia euskararen iraupenerako bide bakarra zen, eta uste horrek bultzaturik heldu zen euskal estatu baten beharraren ondorioa.

Euskararekiko ardura hori, baita ere, garbiki azaltzen du, bere bizitzan zehar izan zituen elkarrizketetan, e.a.ean. Baina batez ere, praktikan.

1955ean hasi zen euskaraz idazten, eta garaiko aldizkari guztietan parte hartu zuen. Ezagunak zaizkigu hizkuntzaren eremuan egin izan zituen hainbat landa ikerketa, hizkuntzaren erabilerari buruz, eta baserriz baseri ere ibili izan zen, herriko hizkerak, esamoldeak eta atsotitzak jasoaz.

Euskal idazleen artean egin zuen bere tokia, batez ere nobela beltzak idazten lehenengoetariko izan zelako.

Azkenean, 2008an hil zenean, Elgoibarko herriak, bizitzan zehar, agian omenaldi garrantzitsurik egin ez ziolakoan edo, Udal liburutegiari ere bere izena jarri dio, zor horren truke nahian, ia bukaeran Herriko Seme Kuttun izendatu zutenaren ondorio.

Baina, Gotzon Garateren literatur eta idazle bizitza luze eta oparoan, (30 bat liburu argitaratu baititu) bada arlo bat gutxi aztertu izan dena, agian, berak ere bide hori ez zuelako jarraitu edo sakondu (ez gutxienez publikazioetan e.a.) gaztaroan ezik. Arlo hori ikerketa filosofikoarena da.

Nik ez dut esango lan honetan Gotzon Garatek pentsamendu filosofiko berezia garatu zuenik, ez dudalako ildo honetan sakondu, eta seguruenik, ez zuelako halako garapen berezirik egin, baina klabe batzuek aztertu ondoren, **zera esan dezakegu, bere garaiko seme, euskal herrian 60. Eta 70. Hamarkadan egon zen jakin-min intelektual berri horretan erabat murgildurik egon zela, saiatu zela bere garaiko pentsamenduak ikasten, ulertzen, eta beldurrik gabe, (eta aurreiritzi askorekin) Frankismoaren azken urteetako eferbeszentzia horretan parte hartu zuela.**

Beldur gabe esaten dut, zeren bere formazio erlijioetsua kontuan hartuz gero, jesuita izan baitzen bizitza osoan, adarretatik Marxismoaren gaiari heldu zion, eta batez ere, gu

euskaldunontzat, interesgarria bezain zaila egin ohi zitzaigun ildoa landuaz, hain zuzen ere, Gotzoni inporta zitzaion gaia: Nazionalismoa, hots, Marxek nazionalismoari buruz zuen ikuspuntua (edo ikuspuntu eza) aztertu zuen.

Beste gauza bat da, ea garaiko pentsamendu eskuindarrak Gotzon Garate erabili nahi izan ote zuen (izatez, badirudi Jesuitek agindu ziotela Marxi buruzko ikerketa egitea) 60. Hamarkadako berpizkundearen belaunaldi horren pentsamendu berriaren aurka, hau da, ea Jesuiten (eta euskal eskuinaren) asmoa izan zitekeen eraikuntza nazionala (abertzaletasuna) eta eraikuntza soziala (Sozialismoa-Marx) biltzen zituen pentsamoldearen aurka egitea, beste batzuen artean, Gotzon Garateren bitartez.

Nolabait, Gotzon Garateren abertzaletasuna jakina zenez, eta horregatik behin baino gehiagotan “baztertua” izan zen ordenaren barruan (1), Marxismoa eta abertzaletasunaren arteko inkompatibilitatea demostratzeko baliagarria izango zitzaielako asmoz edo, Gotzon gazteari agindu zioten gai hau sakontzeko. Izan daiteke, baina ez dut horri buruzko frogarik.

Ikasketa erlijioitsuak egin eta gero (Loiolan, Bartzelonan, Madrilen eta Innsbruck-en), hasierako gazte garaiak igaro ondoren, filosofiara hurbildu, (Filosofia ez erlijiozua, esan nahi dut) eta Alemanian, beste autore germaniko batzuek irakurri eta gero, (Nietzsche, Fichte, Hegel, eta batez ere Freud, aipatzen ditu (2) Marxismoa landu zuen, gero Madrileko unibertsitatean burutuko zuen Tesia egin ahal izateko.

“Marx y los nacionalismos separatistas” izan zen tesiaren gaia, eta 1974 izateko, ez dakit, benetan, Madrilen zein aurpegi jarriko zioten bertako filosofia irakasleek, hitz demonizatu hauek aipatzean, eta batera gainera: Marx alde batetik, nazional katolizismoaren mamu handi eta pertsegitua, eta “separatismoa” bestetik, garai horretan lur-azpitik ere atera ezindako hitza.

Bada, Tesia gainditu eta gero, Deustuko unibertsitatara itzuli zenean, orduko Giza zientzietako ikasketa desberdinetan Marx irakatsi zuen, hortik, geroago, euskararen bultzatzaile bezala euskal filologiako ikasketan antolatu zituen arte, gaia aldatuaz, eta bere azken urteetan izango zuen hizkuntzari buruzko lotura estutuaz.

Lehenago, Madrilen, gazteleraz, egiten ari zen tesiaren ingurutik bi liburu euskaraz argitaratu zituen; Bata, *Marxen Marxismoa* (1971), zeinetan, era dibulgatiboan, Marxen pentsamenduaren iturriak, eta XIX. Mendeko hainbat filosofo europarri buruzko erreferentziak egiten dituen; bestea, *Marx eta Nazioa* (1972), gazteleraz eginda zeukan tesiaren zati batzuen itzulpena. Horrez gain, beste bizpahiru liburu ere, beranduago, ildo beretik, argitaratu zituen, *Marxen ondoko errebisionismoa. Rosa Luxemburg*. Edo *Leninen bizitza* (1974).

Gaia aztertzen ari zela, eta belaunaldiaren erdi erdian kokatu zen une batez, Jokin Apalategi, Paulo Iztueta, eta garaiko Marx-zaleekin eztabaitan. Horren erakusgarri hauek, *Sei idazle plazara II* (3) liburuan, egin zioten kritika zorrotza.

Lehen bi liburu horien irakurketa egin dut nik, haren tesiaren ingurukoena, Tesia bera, gaztelerazkoa, alboan izanik. Gotzon Garateren pentsamenduan hainbat xehetasun, baieztapen eta ideia atzeman nahian egin dut irakurketa hau, beti ere kontziente izanik, tesi baten ikerketa sakonak, noski, beste maila bateko lana behar izango lukeela.

Eta hau da aurkezten dizuedana, *Marx eta Nazioa* liburuan, Tesiaren itzulpenean, lehen atalean (hiru atal ditu tesiak) egiten duen ikerketaren berri, eta ateratzen dituen emaitzen berri.

Lehengo zatian testuinguraketa egingo dut, bitan banaturik, lehena orokorragoa, bigarrena Euskal Herriko testuingurura hurbilduaz.

Bigarreanean, GGk Marxi buruz egiten duen azterketa psikologikoa komentatuko dut

Bukaeran, egindakoaren emaitza bezala, ondorioren bat edo beste inferitzen saiatuko naiz.

2.- TESTUINGURAKETA

2.1- Testuinguraketa orokorra

Estatu espainolean frankismoaren gizarte katoliko itxia garatzen zen artean, 40ko hamarkadan, Europa eta munduan hainbat gertaera garrantzitsu ematen hasi ziren. Gertaera hauek, batez ere, 2. Mundu gerra eta ondorioak, eragin handia izan zuten, (noski, apurketa galanta eta heriotza kopuru izugarria gure zibilizazioaren gunera ekarri zuelako), baina, baita ere, gizakia eta gizarteari buruzko pentsamoldeari begira, aldaketa nabarmena atzeman daitekeelako haren ostean.

Iraultza sobietarraren bilakaera indartsua, EEUUen nagusitasun ekonomikoa kapitalismo aurreratu-Inperialismoan, Europako berreraikuntzan ongizate estatuaren garapena, bi ereduaren arteko gerra hotza, eta deskolonizazio prozesuek, marxismoan oinarriturik 3.munduan garatu ziren askapen mugimenduak, 50. Hamarkada oso dinamikoa eratu zuten.

Horrekin batera, gune bakoitzean, askapen mugimenduen inguruko teorizazioak (F. Fanon), gizakiari buruzko filosofia berrituak (existentzialismoa, pertsonalismoa), mundu ikuskera berriak (estrukturalismoa, positibismo logikoa) eta Marxismoa beraren egokitzapenak (Mao, Trosky, Fidel) ere egin ziren. Zientzia arloan, 30.hamarkadan arruntak ziren zenbait kontzeptu, arraza e.a. baztertuak izan ziren, teknologiak izugarritzko aurrerapena izan zuen, e.a.

60. hamarkadaren bukaera guzti horren eztanda adierazgarria izan zen. Gizakia ilargira heldu zen, Bomba nuklearrek lurra bera arriskuan jarri zutelako. 3. Mundu osoan bi blokek talka egin zuten, 1. Munduan gerraren aurkako mugimenduek barne-statusa zalantzan jarri zutelako. Soldadu amerikarrak (gero eta intsumisio handiagoz) Vietnam-en gerra irabazten zedela guda politikoa galtzen ari ziren, eta Parisen galtzada-harriak jaurtikitzen jendartea irauli zuten, beste modurik bazegoela –irudimena boterera-esateko.

2.2.- Euskal herriko testuingurua

2.2.a. Testuingurua oro har

Euskal Herriko pentsamenduari dagokionez, guzti horren eragina ahulago eta beranduago etorri bazen ere, esan behar, 50. Hamarkadaren bukaera aldera hasi zela olatua harrotzen.

Bertako testuinguruaren berezitasunak aipatzeko, lehenik, zera ikusten dugu, Euskal herrian, 50. Hamarkadan, Eliza gizonak direla garaiko pentsalari ospetsuenak, baita pentsamendu espainolzale ofizialaren aurkakoetan ere.

Alde batetik, Nazionalkatolizismoaren esku luzeak gizarte osora hedatuak zeuden, botereak zakarki adierazten zuen lez, errepresio eran, edo Nafarroako kasuan, reketeen sare sozialaren menpe.

Bestetik, nazionalisten aldetik ere, “Euskaldun fededun” mitologia JELtzalea erroturik zegoen, arlo horretan bat egiten baitzuten pentsamolde hegemonikoarekin, eta Estatu kolpea eta gero gerra garaian egin zuten genozidioaren ondorio, ezkerreko pentsamenduaren eliminazio fisikoa benetakoa izan zelarik, “gorria” izatea satanizatua zegoen gizartean, bai kanpoko indar zapaltzailearen aldetik, bai bertako burgesiaren aldetik ere.

Bigarrenik, Pentsamendu Marxista ohikoa, gerra aurrekoa, gure herrian “kanpoko” pentsamendua bezala ikusia zegoen, eta salbuespenak salbu, (esaterako ANVren jarrera sozialista erabat minoritarioa izan zen, oso berandu sortua, 1931an, eta eibartar sozialismo baskista ere herri mailako fenomeno izan zen gehien bat, hain zuzen ere), Euskal gune industrialetan garatu zen sozialismoa eta komunismoa Estatuari begirakoa eta Nazionalismoaren aurkakoa izan zen, bertako hirietan sortua izan arren, hein handi batean.

Euskal Herriko gazteek, (GG 1934an jaio zen) jendarte hertsu eta ideologizatu batean hezituak izan ziren. Gehienak, lan munduan hasi ziren mutikoak zirenetik, neskak josten eta etxeko lanetarako prestatzen ziren artean, gutxiago batzuek, bertako burgesiaren semeek, lanbide heziketara bideratuak izan ziren, lantegi berriak eraikitzeko, eta gutxiengoak, eliteak, aginte postuetan kokatu zituzten, gizarte klasista atzerakoenaren adierazpen.

Horregatik, euskal gazteek, ikasi nahi bazuten, salbuespenak salbuespen, elizaren gonapetik hasi beharra zeukaten.

(Horren erakusgarri Gotzon Garateren familia bera dugu: lau anai joan ziren jesuitekin ikastera. Baina gehiago daude, Paulo Iztueta, Joxe Azurmendi, Torreal dai. Horregatik ere, nazionalista espainolzaleek esaten dute ETA seminarioan jaio zela)

2.2.a.i.- Belaunaldi berri eraldatzailea

Egoera itogarri honetan, 50. Hamarkadan piztu zen euskal gazteen belaunaldi berria. Eta belaunaldi berri hau kapaz izan zen, atzetik zeuzkan lotura ideologikoak hausteko, bai jaungoikoa eta lege zaharrekiko lotura, bai ohiko marxismo dogmatiko zaharkituarekiko lotura.

Belaunaldi hau kapaz izan zen testuinguru orokorretik hartutako pentsamenduak bereganatuz, bertakoa aberastuz eta sakonduaz, garai berri bati hasiera emateko. Imanol Galfarsorok esango lukeen bezala, Belaunaldi honek eratu zuen azken euskal ebentoa (aipatu bakarrik egingo dut, ezin bainaiz kontzeptuan sakontzen hasi).

Eta hauxe da, hain zuzen ere, belaunaldi honek, era dinamikoan, era praktikoa, era iraultzailean, eta era armatuan, jorratu zuen bide berria: orain arte bereizirik zihoazen bi bide, eraikuntza nazionala eta eraikuntza soziala, bat eginda, tentsio guztiekin bat eginda, garatu.

Eta hor Euskal eskuin hegemonikoaren egonezina garbi ikusi ahal izan zen, bai ibilbide praktikoa, EAJzaleek ezker abertzaleari egingo dioten kritika zorrotzak –kanpoko ideologiak zekartzatela, euskalduntasunaren galera, e.a.- denok irakurtzen genituen, eta arlo teorikoan ere, modu leunagoan, Gotzon Garate bezalako intelektualen bidez.

2.2.b.- EHko testuingurua: Ageriko adierazpena

Euskal Herriko testuinguru honen adierazgarriak 2 bidetik saiaturiko naiz garatzen, alde batetik, garai horretako saiakera, liburu eta aldizkari artikuluen argitalpenetan ikus daitekeena aztertuz, bestetik Militantzia politikoaren munduan, Marxismoaren sarrera hori nola egiten den begiratuaz, ETArek sorrerako testu eta adierazpenetan, hain zuzen ere.

1.- Argitalpenen isla. Xabier Altzibarrek, *Saiakera euskaraz* lanean esaten duenez, diktadura frankistaren eta nazionalkatolizismoaren kontrako jarrera sortu zen 50. hamarkadako belaunaldiko intelektualen eta erlijiosoen artean. Mugimendu hori 60.eko hamarkadan lehertu zen, eta horren erakusgarri da garaiko argitalpenen zerrenda.

Gerra osteko Euskal idazleak, hasieran sakabanaturik, atzerrian, batez ere, Hegoamerikan, edo klandestinitatean egon ziren. Egoerari dagokion moduan, literatura eta pentsamenduaren produkzioa erabat murriztu zen. 40ko hamarkada zen.

50. hamarkadan hasten da, berriro, mugimendua. Garai honetako testu eta liburuak ikertzen baditugu, esan daiteke, pentsamendu erlijiosua dela nagusi, eta askotan, ildo bakarra. Honen ezaugarri dira garai horretako guruak, hasi berriak diren aldizkarietan eta argitaletxeetan idazten dutenak (Euzko Gogoa, Egan, Jakin, Zeruko Argia): Nemesio Etxaniz, Salvatore eta Luis Mitxelena, M. Lekuona, Alfonso Irigoien, Orixe, Zaitegi, e.a.

Bitartean pentsamendu kritikoaren hastapenak ikusten hasiko gara, baina oso era urrian, Egan-en esaterako, Unamunori buruzko artikuluren bat (C. Santamaría, 1949) Sartreri buruzko besteren bat (Erkiaga tar eusebio, Egan, 1951) edo autore kritiko edo gazteren batzuren poesiak, Krutwig, Aresti, Mirande, Peillen.

50. Hamarkadaren 2. Erdialdean hasiko da, batez ere, jakin-en inguruan, testu luzeagoak eta saiakerak azaltzen. Txillardegik Unamunori buruz (Egan, 1957), eta Salvatore Mitxelenak, Iñurritza ezizenez, *Unamuno eta Abendats. Bilbotar filosofuaren eta Euskal-Animaren jokerei antzemate batzuk* (Baiona, 1958) saiakera argitaratu zuen, eta lehen benetako eleberri “iraultzailea”, ikuspuntu existentzialistari egiten dion hurbilketarengatik, garai horretakoa da: *Leturiaren egunkari ezkutua* (Jakín, 1957).

60. hamarkadan, erdialdera, Euskal belaunaldi berria pentsamendu kritikoa garatzen hasten da, saiakera eran. Hor dugu esaterako Txillardegiren *Huntaz eta hartaz (Hamar saiakera labur)* (Goiztiri 1965).

Euskal saiakeraren berpizkunde garai honetan, Saiakerei buruzko saiakerak ere egin ziren –saiakeraren definizioari, ezaugarriei eta baloreei buruzko hainbat hausnarketa. Txillardegiren “*Saiakera eta Hizkuntzen pizkundera*” (1966) erabakigarria izan zela dio X. Altzibarrek, gazteen artean saiakera idazteko joera piztu zuelakoan, batez ere Jakín-en inguruan.

(Aparteko garrantzia dauka, ikusten denez, Txillardegik garai honetan)

70. hamarkadan ikusi ahal izan ziren mugimendu horren ondorioak. Hemen eman zen berpizkunde horren benetako eztanda. Joxe Azurmendik aztertu zuen fenomeno hau sakonki (*Euskarazko saioa XX. mendean*, Hegats, 4, 1991.).

Saiaketa ideologikoak biderkatu ziren, gai eta arlo guztiak landu ziren (Historia, politika, soziologia, hizkuntzalaritza, filosofia, ekialdeko filosofia, literatur kritika), eta Europa eta mundu osoko pentsamendu iturrietatik edan zen.

Saiakera erreakzionarioak ere izan ziren garai horretan, noski, tradizioa eta erlijioaren jarraitzaileak: Aita Villasanteren Kristau Fedea (1986), Orixeren Jainkoaren billa (1971) baina, 50. Hamarkadan izan zuten “botere” ideologiko horren galera nabaria izan zen, zorionez!

Horri lagunduaz, kanpoko pentsalari nagusien itzulpenak eta ikerketak egin ziren; bai klasikoenak (Platon, sofistak...) bai garaikoenak (Marx, Engles, Lenin, Mao Tze Dong, B. Russell, F. Fanon, Dobb, Freud, Lévi-Strauss, Von Humboldt...).

Baina, Euskal Testuinguru bereziari Europa eta munduko testuingurua gehitzen badiogu, konturatuko gara zergatik dion Azurmendik, garai honetan, eztabaidarik handiena, eta azterketarik handiena Marxismoaren inguruan ematen direla.

Bi autore nagusi daude, nire ustetan, marxismoari buruzko lanketa honetan 70.hamarkadako hasieran. Rikardo arregi, eta Joxe Azurmendi bera.

Rikardo Arregi (1942-1969) gazterik hil zen, 27 urte zituela. Bere saiakerak *Rikardo Arregi* (Jakín sorta, 1971) liburuan daude batuta. Marxismoaren, ezkertasunaren eta eskuintasunaren aurrean izan beharko jarrera, edo euskaltzaleen katolizismoa lantzen dute.

X. Altzibarren esanetan (5), Rikardo Arregiren saiakera batzuek polemikoak izan ziren, bai aurreko belaunaldietako ordezkari esanguratsuekiko (Orixe), baina baita Txillardegirekiko ere. Sonatuak izan ziren honekin izandako eztabaidak, esaterako, *huntaz eta hartaz* liburuan eman zituen iritziei erantzunez, e.a. Arregik pil-pilean zeuden gaiak aztertu zituen, garaiko intelektual katoliko eta marxismoaren aldekoen edo hurbilekoen kezka azaleratuaz.

Joxe Azurmendi, denok ezagutzen dugu, poeta, literatur kritika egilea eta pentsalaria dugu. Altzibarren laburpenean, horrela egiten dio sarrera. “*Jakinen* gai sozialei eta literaturari buruzkoei idazten hasi zen. Aldizkari horretara oso lotuta dago, eta zuzendaria ere izan zen. *Branka* eta *Zeruko Argia* aldizkarietan ere artikuluak argitaratu ditu; hainbat saiakera-liburu ere argitaratu ditu euskaraz, eta horretan beste autoreengandik bereizten da. Egungo pentsaera modernoa (alde ideologiko, politiko eta sozialetik) eta literatur kritika dira bere saiakeratan gehien jorratzen direnak”.

Azurmendik Europako pentsalarien (batez ere alemaniarak) filosofia eta pentsatzeko modua jaso ditu. Euskal kulturaren produkzioari buruzko etengabeko erreferentzia berezko beste ezaugarri bat du.

70. hamarkadako saiakera eta pentsamendu eztanda honetan marxismoari eta nazionalismoari buruzko hainbat lan idatzi zituen: *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* (1971). Gizartea, kultura, artea eta literaturaren arteko harremanak: *Kultura proletarioaz* (1973), *Iraultza Sobietarra eta literatura* (1975), *Artea eta gizartea* (1978), *Errealismo sozialistaz* (1978), *Kolakowski* (J. Arregirekin) (1972). Euskal nazionalismoa eta sozialismoa: *Arana Goiriren pentsamentu politikoa* (1979), *PSOE eta euskal abertzaletasuna 1894-1934* (1979), *Nazionalismoa/internazionalismoa Euskadin* (1979), *Eibarko sozialismoaz*.

Giro honetan, eta garai honetan, bada, pentsalari gazte guztiak, belaunaldi oso bat, gizarte arazoei buruzko sentsibilitatea zutenak, batez ere, (Paulo Iztueta, Jokin apalategi) Sozialismoaren ideia, marxismoa, e.a. eztabaidatzen eta sakontzen saiatu ziren, marxismoaren ildoetatik urrutiago zeudenak eta aurka zeudenak ere horretara beharturik sentitu zirela.

Hor koka ditzakegu, X. Mendigurenen, L. M. Muxikaren, M. Pagolaren, J. M. Torrealdairen eta M. Ugaldereen lan batzuk, R. Garateren tratatua, *Lanaren antropologia* (1973); A. Irala Bultzagile JELtzalearen *Bat bitan banatzen da* (1975-1976), gaztelaniara itzulia: *Uno se divide en dos: el arma revolucionaria de Mao Tse-tung* (1976);

2.2.c.- Euskal Nazio Askapen Mugimenduaren sorrera, ETArene lehen idatziak eta bilakaera.

1984an, Jakin-ek argitaratu zuen Marxi buruzko monografikoa, *Marxen Gaurkotasuna* deitu zutena. Bertan, euskal autore batzuk Marx-i buruz idazten dute, 70. Hamarkada horretan izandako eztabaiden ondoren, era “sosegatuagoan”.

Joxe Azurmendiren lana, *Honela aurkitu zen marxismoa* dugu lehen artikulua, zeinetan, hain zuzen ere, autoreak belaunaldi horretan Marxismoa nola sartu zen aipatzen duen.

Azurmendiren sarrerakoa adierazgarria da:

60. urteetako erdi aldera egin zuen “marxismoak” lehenengo agerpena gure artean. 1970 joko dio, teorikoki heldutasun erlatibo bat eta sozialki pisuren bat hartzeko. Egon aspaldiagotik zegoen, alderdi komunistarekin esate baterako. Baina gerraosteko belaunaldiek ez dute handik hartu beren marxismoa eta hemen ez dugu aintzakotzat hartuko.

Bost garai edo aipatzen ditu Azurmendik Marxismoaren aurkikuntza hau azaltzeko. Ikus daitekeenez, hasieran errezeloa eta mesfidantza izan ziren nagusi, geroagoko zalantza eta hurbilketa, eta azkenik, zaletasunerako bidea izan zen. Dena dozena erdi bat urteetan, 1958 1967 artean, alegia. ETAREN sorreratik V. Asanbladaraino.

1.- ETA ren sorrerako urteak. Joxe Azurmendik dioena zera da, garai honetan, jatorri ideologikoagatik, hots, euskal herrian zegoen ikuspuntu demokrata-kristauaren eraginagatik, alde batetik, faxismoak sortzen zuen aurkako jarreragatik, bestetik, eta baita ere, garai horretan Komunismo sobietar estalinista-autoritarioak (Gerra hotzaren garaia da) eragiten zuen gaitzespenagatik, ETAKo gazteak Marxismotik urrun zebiltzala. Halere, bazeukaten sozial kristautasunetik zetorkien sentsibilitate soziala, eta testuetan azaltzen dute kooperatibismoaren aldeko hautua, edota “oinarrizko ondasun iturriak eta Aberri aberastasunaren sozializatu beharra”. (MG, 8-9.or)

Joxe Azurmendiren iritzia da, ETAKo gazteek, garai hartan ez zutela sentitzen oraindik Marxismoaren premiarik, eta bai ordea, PNVtik bereizteko premia.

2.- Marxismo nahasi bat. Garai horretan, Pertsonalismoa eta Existenzialismoaren sarrera eman zen euskal pentsamendu gaztean, eta biak ala biak oso kritikoak ziren Marxismoarekin. Ikuspuntu bi horietatik, marxismoari egozten zitzaion pertsonarekiko, gizabanakoarekiko sentsibilitate falta. Bestalde, Garaiko Marxismoari dogmatikoa izatea leporatzen zitzaion, eta, politikoki, aurpegiratzen, “diktadura”ren aldeko izatea, eta horrek, euskaldunengan gaitzespen handia sortzen zuen.

Bestalde, ikusten zen baita ere, herri zapaldu guztietako askapen borrokek (Algeria, Txina, Cuba), eta hori aldeko handia zen Euskaldun iraultzaileentzat, marxismoari lotuak zeudela. Honek eztabaida areagotu zuen.

3.- 1. Biltzarra 1962. Azurmendiren iritziz, 1962an hasiko da ETAKo jendea Marxismoa estudiatzen. Marxismotik oraindik urrun egon arren, klase borrokaren errealitatea aitortzen da jadanik, eta abertzaletasun burgesaren salaketa ere hasten da.

ETAREN 1. Biltzarra 1962an izan zen, baina ordurako eztabaida hasia zegoen. Halere, 1. Asanblada honetan, ETAK faxismoa eta komunismoaren aurkako adierazpena egin zuen, demokrazia errepresentatiboaren aldeko hautua eginaz. Estatuaren akonfesionalitatearen alde eginaz, jada PNVrekiko urruntzea ere azalarazi zuten.

4.- 1963 Vasconia. ETAREN II. Biltzarra 1963an izan zen. Krutwig-en *Vasconia*-ren eragina aipatu izan da, ezkerrean joeraren oinarri bezala, baina, nire ustez, ez dago garbi liburu honek benetan izan zuen eragina hainbestekoa izan zen.

Azurmendik dio, liburu hau hurrengo urteetan emango den bilakaera ulertzeko ezinbestekoa dela. Zergatik? Bada, Euskal komunitarismoaren aldarrikapen hori erabat inportantea delako, ezker abertzalearen ezkerreko pentsamendua legitimatzeko.

Azurmendiren ikuspuntutik, Vasconia liburua klabea da garai honetan, Marxismoaren edukiei legitimazio euskalduna emateko. Marxismoa kanpoko ideologia zenaren akusazioa PNVren aldetik egiten zen, (kapitalismoa Euskal herrikoa balitz bezala?) indartsu, eta, bestalde, estalinismoak, “diktadurak” sortzen zuen mesfidantza horren aurrean, Krutwig-ek, Vasconia-ren bidez, euskal igualitarismo komunitario zaharraren aldeko tesia aurkeztean, euskal komunismo jatorra posible zela adierazi zuen. Krutwig-en eskutik, Euskal herriak bazuen bere tradizio komunista propioa, eta ez zeukan beste inora begiratu beharrik, inor kopiatu beharrik. Horren bidez, dio Azurmendik, Euskal Herriak marxismoaren bere irakurketa propioa egiteko bidea ireki zuen.

1963an, jada, ETAK dio, “*Entendemos que la liberación nacional y la liberación social de euskadi son puros aspectos de la liberación total que propugnamos para las personas de Euskadi (Liberación nacional y liberación social 1963)(MG 17)*”

Lehenengo aldiz sozialista bezala definitu zen ETA. Halere, ez dago garbi zer esan nahi zuen horrekin (Nahita egin zutela dirudi, barneko desadostasunak ekiditzeko), eta definizio horren barruan sartu ziren sektore guztiak Sozialdemokratetatik hasi eta komunistetaraino).

5.- askatasun osoaren borroka, 1964. 1964ko Urteberri egunean, ETAK bere lehen manifestua kaleratu zuen: *Manifiesto de ETA al pueblo vasco*: zeinetan agertzen den jada, garbi, eredu bikoitzaren onarpena. Azurmendiren ustez, mugarri urtea izan zen ETAREN pentsamenduaren historian urte hau.

“*ETA preconiza como única solución satisfactoria para Euzkadi la lucha de todos los vascos por su liberación nacional y liberación social*”, esaten zuen manifestu honetan, eta hau izango da ordurantzean, ETAREN eta, ezker abertzalearen, eta askapen mugimenduaren pentsamenduaren ardatza.

ETAREN III. Biltzarra 1964an izan zen, eta onartutako ponentzia *La insurrección en Euskadi* izenaz argitaratu zen. Hemen jada beste herrialde zapalduetako askapen mugimenduei begira jarriak dira, eta PNVrekiko harremanak erabat apurtuko dira, alde bietatik kritika gogorak egiten direla (4).

Azurmendiren ustez, beraz, marxismoaren ildoak, pertsonalismoa eta existentzialismoaren galbahetik pasatu izanak, batetik, hirugarren mundutiar askapen mugimenduen eraginak, bestetik, eta Krutwig-en Vasconia honi eskerrak, ETAK, bere borroka nazionalaren eta sozialaren lehenengo sintesia egin ahal izan zuen, 1964an.

Sintesi horren ondoren, Marxismoari atea irekita zegoen, eta belaunaldi gazteago batek, 68-70 aldera, marxismoarekin beste aurkitze sakonagoa egingo du, V. Asanbladaren inguruan.

3.- GOTZON GARATEREN BIOGRAFIA

3.1. Formakuntza intelektuala

Angel Maria Garate 1934an jaio zen Elgoibarren, eta 2 urte zituela Frankisten Estatu kolpea eta honek eragin zuen 3 urteko gerra bizi izan zuen. Batxilerra ikastera Durangoko Jesuiten ikastetxera joan zen, “interno” bere anaia zaharragoak ere han zeuden eta.

Han berreskuratu zuen euskararekiko gogoia, umetako egoerak erabat itzalita zeukana, Bere Anaia Romanek esaten digunez (Garate Goyarzun, Roman: Angelmari - Gotzon Garate.pdf). Durangotik Javier-era joan zen Batxiler ikasketak bukatzera. 1953an, Batxiler azterketa ofizialak Valladoliden atera zituen.

Ondoren, nobiziatuan sartu zen Loiolan. Nobiziatua bi urtez egin ostean, “Junioratua” Loiolan egin zuen. Bi urtez hizkuntza klasikoak, grekoa eta latina ikasten zituzten, kultura greko-latino klasikoa (Sofokles, Demostenes, Platon, Virgilio, Horazio) eta Europar eta Espainiar literatura ikasten zuten (Shakespeare, Dostoievski, Faulkner) “Junior” hauek, hizkuntzak ere bai (Frantsesa, ingelesa, alemana). Bitartean, Gotzonek, bere kasa, euskara landu zuen, eta 21 urterekin, 1955 inguruan, hasi zen jada, lehen artikulua idazten, “Jesusen bihotzaren Deia” aldizkarian, Gomiga ezizenez.

Gero, Filosofia ikasketak egin zituen beste hiru urteetan. Ondoren, Jesuita guztiak bezala magisteritza egin zuen, bi edo hiru urtez, Zaragozan. Anaia Romanek dio, Gotzonen jarrera euskaltzaleagatik bidali zutela urrutien zegoen tokira. Zaragozan ikasketak egiten ari zela, errusiera ikasi zuen Kide batekin.

Hemendik Innsbruck-era joan zen teologia ikastera. Lau urte egin zituen han, eta bukatu ostean, Cordoban eman zuen beste urtebete.

Guztira 14 urte egin zituen ikasten. Bi urte nobiziatuan, lehen probazioa deitzen zutena, 11 urte ikasketa ofizialen sasoia, bigarren probazioa deitzen zutena, eta azkena, apaiz bezala praktika egitea, Cordoban egin zuena, hirugarren probazio bezala.

Orduan, Jesuitak, besteentzat lan egiteko denbora hartzen dute, hau da, euren bizi osoarako jokabide bezala, eta kalera irteten dira. Halere, beste bi urte Fribourg-en igaro zituen Soziologia Marxistari buruzko ikasketak egiten.

Hori egin eta gero, jada, Bilbora itzuli zen, eta Deustoko unibertsitatean emango zuen bere bizi, irakasle bezala. Horrez gain, 1974an, Madrilen, Filosofiako Tesia aurkeztu zuen, gazteleraz, “Marx y los nacionalismos separatistas” deitu zena. Eta geroago, Deuston Filologia erromanikoan lizentziatu eta gero, Euskal Filologiako ikasketak antolatu zituen, 1976an hasi zirela. Hemen euskal literaturaren katedra eskuratu zuen, urte batzuk geroago.

Munduan zehar bidaia asko egin zituen, lau kontinenteetan zehar, udaro New York-era joaten zen, Errusian egon zen, familia batekin bizi, e.a. Euskal Herrian zehar ere,

euskararen ikerketan batez ere, goitik behera ibili zen, herriz herri, baserriz baserri. (Ez dugu aipatuko euskal idazle bezala egindako lan eskerga).

Deuston zegoela, hasieran Marxismoari buruzko asignatura ematen zuen, eta 1971ean, euskaraz, “Marx eta Marxismoa” liburua atera zuen, euskaraz, ikasleei ematen zien apunteekin (H. Etxeberriarekin elkarrizketa). Liburu honetan, Marxen filosofiaz gain beste hainbat autoreei buruzko ideiak azaltzen dizkigu, Mendebaldeko filosofo nagusienak, hain zuzen ere. Bai Marxen ingurukoak zirenak, (Engels, Bakunin, Lassalle), Marxen aurrekariak kontsideratzen dituenak (Fichte, Schelling, Hegel, Feuerbach, Stirner) Sozialista utopikoak (Saint Simon, Babeuf, Fourier, Owen, Proudhon, Blanqui, blanc) Ekonomista ingelesak (A. Smith, D. Ricardo, Malthus,) e.a.

Beraz, ikasketei begira, GG pertsona intelektual kultura da, ofizialki Innsbruckeko Unibertsitatean Teologian lizentziatua, Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean Filosofian doktoratua, Deustuko Unibertsitatean Filologia Erromanikoan lizentziatua, eta Fribourgeko Unibertsitatean Marxismoan espezializatua.

3.2.- Gotzon M. Garate gaztea:

Gure ikerketaren harira, 70. hamarkadako euskal pentsalari gazte guztiak, pentsamendu zurrumbilo hartan harrapatuak ibili ziren, Gotzon Garate gaztea bezala. 1971ean atera zuen bere lehen saiakera, “Marxen Marxismoa”, eta urtebete geroago 1972an, “Marx eta Nazioa”.

(Ez dakit liburu hau 1974an defendatu zuen tesiaren itzulpena den (“Marx y los nacionalismos separatistas”) ala tesia den berak argitaratutakoaren gaztelarazko itzulpena) baina garbi dago testua bera dela).(H. Etxeberriaren entrebistan dio D. Amundarain-ek itzulitakoa dela, baina euskarazko argitalpena 1972koa da, eta tesia 1974koa.

Liburu horretako sarreran, Marxen pentsamenduak munduko langile eta intelektualen artean izan duen eragin handia onartzen du. Zera dio GGk:

Gizadiaren sail handi batek, gaur, bere burua marxista jotzen du. Bi nazio handiek, errusiak bere 242 mloi bizi-lagunekin eta Txinak bere 760 milioekin, Marx hartu dute gidaritzat ofizialki, eta, beren gizarte berri bat sortu nahiean, haren irakaspidera jo dute.

Marxismoa, benetan, irakaspide arras liluragarri gertatzen da. Langileak ez ezik, intelektual-jende asko eta askok ere, harengan aurki uste du gaurko gizartearen minez darabilkien akatsen sendabidea.

Baina berari interesgarriago egiten zaiona zera da, Marx-en filosofia, gehienbat, Europako gunean sortua eta garatua izan arren, eta GGren ustez, nahiko “Eurozentrista” izan arren, hots, jendarte garatueterako nolabait sortua,

Herri zapalduak ere, marxismoa hartzen dutela euren borroken erreferentetzat, nahiz eta Marxek eurei buruz, gauza gutxi esan.

Marxen irakaspiderako joera hori, ordea, ez da, beren buruaren jabe diren nazioen arazoa bakarrik. Beren burua herri zapalduzkat daukatenak ere, harretara jotzen dute irriki batean, eta beregaineko “estado” izaera lortzeko bide-irakasletzat marxismoa hartzen dute.

Bai Europako, bai beste kontinentetako zenbait etnia talde-tiki, Errusia senide-artearen paradisia delakoan dago. Errusiar herria –dio zenbaitek-, Marxen asmoak historia bihurtuaz, bere altzoan hizkuntza eta arraza desberdinak bateratzeko gauza izan da.

GGk, baina, bere formazio erlijiosuagatik, bi oztopo ditu Marxen pentsamendua ulertzeko: Kristau zuzena izanik, Marxek proposatzen duen ateismoa ezin du onartu,

Feuerbachek eta Marxek errezegi zokoratu zuten erlijioaren auzia. Laster ospatuko dugu Marx hil zanaren eunurteburua; eta erlijioak lehen bezala zutik dirauela ikusten dugu (...) Erlijioa, gizakumeak barnean hasiera-hasieratik kokatuta zeukaten sinismen-gaietatik nunbait sortu zen (MM 50-51)

Eta euskaltzale eta abertzale denez, ohikoa izan den Marxismoaren garapena ikusirik, Marxek proposatzen duen munduko langile guztien biltze hori, ez du garbi ikusten.

Marxek, Prometeo berritatzat hartzen du bere burua, gizakia komunismora bidean argitu duen argi-emaitzat. Gizaki osoa salbatu behar du, ezeren sozial baliotasunik gabe dagoen proletarioa. Erdizkako, axaleko eginkizuna izanen litzateke, desegokia berarentzat, gizakia nazio zapalkuntza soiletik askatzen aritzea (MN 92)

Nik uste dut, beraz, GGren Marxismoari buruzko ikerketaren zergatiak hemen aurkitu behar direla; alde batetik, aipatu dugun testuinguruaren eragina, bestetik, hain eraginkorra bihurtu den pentsalari horren ulertu nahia, eta, aldi berean, kontraesanak aurkitu nahia, ezeztatu nahia.

GGren aurreiritziek, eta ikerzaletasunaren arteko tentsioak, ikasitakoaren eta sinesmenaren indarra, eta “beste aldeko” pentsalari garrantzitsuaren kontzeptualizazioa ulertu beharrak, talka egiten dute GGren pentsamenduan 70 hamarkadaren hasiera honetan.

GGk, bere garaiko sektore antimarxistak (esaterako Anton Irala eta Bultzagile jeltzaleak) egin zuten bezalako ikerketa “politizaturik” ez du egiten. Horretan, irakurritakoaren arabera, nire pertzepzioa izan da, GG marxismoari buruzko irakurketa

zintzoa eta benetako ikerketa egiten saiatzen dela, nahiz eta, batzuetan, bere pentsamendu dogmatikoak itsutzen duen, eta nahiz eta jesuiten asmoa, GGri lan hau agindu ziotenean, Marxismoaren desakreditazioa izan, edo nahiz eta Bilbo-Deustu inguruko bertako eskuinaren asmoa, Marxismoa eta abertzaletasunaren arteko lotu ezina demostratzea izan.

4.- AZTERKETAREN ILDOAREN AZALPENA

Gotzon Garateren Tesia (Euskaratua Marx eta Nazioa) irakurtzerakoan, izan dudana lehenengo inpresioa zera izan da, Tesiaren emaitza alde aurretik emanda zegoela, hots, Gotzon Garateren helburua, Ikerketa egin aurretik Marxi buruz daukan ideia baieztatzea dela.

Harrigarria da benetan tesiaren egitura bera, zeren, alde batetik, Marxen azterketa egiteak esan nahi du GGk aztertu nahi duela Marxek zer esaten duen Nazioari buruz, nola ikertzen duen kontzeptu hau, eta nola artikulatu daitekeen Naziotasuna bere teoria orokorrean. Eta hori ikertzen saiatuko da GG, berak dioenaren arabera

Zein jarrera izan zuen Marxek, nola mintzatu zen beren herri-gazteharora iritsi ziren herri hauei buruz? Haren materialismo historikoan zein toki dagokio nazioari? Aldarrikatu ez-ezik, bizitu ere egin zuen bere nazioartekotasunaz, nazio arazoa alboratu egin ote zuen? (MN 15)

Eta bertako testuinguruari begira ere, onartzen du gaia garai horretan modan dagoela inguruan:

Eta hona, gaur egun gehientxo eztabaidatzen den pundua. Bere burua beregain ikusi nahi lukean herriak, zer espero lezake marxismoarengandik? Gerta ote lezaioke Marx, buruzagi argitzaile eta zapalduen borroka? Ontzat emanen ote du Marxek herri zapalduen borroka? Galdera horiei erantzun nahi nieke, zeharka bederen, nazioaz Marxen kontzeptua nire lan honetan azaltzean (MN 16)

Eta ikusten du Marxek ez zuela bereziki herri edo nazioei buruzko ikuspuntu sistematizaturik

Bere teoriatzko pentsaera, halabaina, han eta hemen barreiatu dago bere idazlen guztian; eta, esan daiteke, orain arte ezer guti egin dela, nazio-arazoaz haren emanikoa sistema bidez biltzeko. (MN 14)

Eta estudioaren emaitza ere aipatzen du

Estudio honen luze-zabalean ikusiko dugunez, Marxek hari bati berari garbi jarraitu zion beti, nazio-arazoari buruzko bere teoriatzko jarreraren. Eta bere praxia ere, bere printzipio orokorreari egokitzen saiatu zen. (MN14)

Baina, harrigarria, Marxen nazioaren gaiari buruzko sentsibiltate faltari buruzko ikerketa “Psikologikoarekin” hasten da lana.

Hiru pusketan eman dut nire lan hau. Marxen bizitza, teoria eta praxia. Lehenengoan zera ematen dut: Marxen nazio arazoari buruzko teoriari, bera judutar izateak eta herbestean eta aberririk gabe bizitzeak zertarainoko eragina egin zioten agertu. Bigarreanean, nazioaz eta aberritasunaz eman duendotrina aztertzeari akin diot

zuzenean. Azkenik, hirugarrean Marx bere politika ekintzan, bere teoria burutzean arakatzen dut. (MN 16)

Lanaren helburuaren logika jarraituz, nire ustez, bigarren zatia, hau da, Marxen teoriari buruzko ikerketa izan beharko litzateke lehen pausua, eta horren ondorioa Marxen nazioari buruzko ulertezintasuna izanez gero, agian hori justifika daiteke, eta bakarrik justifikatu, beste pretensio frogagarririk gabe, bigarren momentu batean, haren egitura psikologikoari aipamena eginaz.

Gotzon Garatek alderantziz egiten du: lehenik demostratzen du (saiatzen da) Marxen nortasunaren eraketaren ondorio (sic) ezin duela nazioaren gaiari buruzko ulerkuntzarik izan. Eta gero, Hasten da haren teoria ikertzen.

Beraz, horrek esan nahi du GGk badakiela, ikerketa hasi aurretik Marxek ez daukala Nazio arazoari buruzko sentsibilitaterik, eta nazio zapalduerik buruz ez duela ezer onik esango bere teorian: tesiaren bidez baieztatu nahi duena!!!!

Lanaren zati hau da, nik hemen aztertu dudana, hain zuzen ere, hauxe da, Marxi buruz, GGk egiten duen azterketa psikologikoa.

5.- MARXEN IZAERAREN AZTERKETA PSIKOLOGIKOA

5.1.- Marxen Nortasuna

GGren lehen trampa handia hasierako esalditik dator. Gotzonek Marxen esaldi bat erabiliko du, manipulatuaz, bere azterketa psikologikoari sarrera emateko:

Marxek (Ekonomia politikoaren kritika liburuaren hasiera), zera dio, “Giza kontzientziak ez du bere sozial izatea determinatzen, alderantziz baizik; beraren sozial gizarteak determinatzen du kontzientzia”. (MN 23)

GGk Marxen esaldiaren hitz jokoa eginaz, zera dio:

Honela adieraz dezakegu Marxen esaera sonatu hori: “nazionalitateari buruzko Marxen ideia beraren sozial nortasunak eratua dago”. (MN 23)

Eta horrek irekitzen dio bidea, edo aitzakia hori hartzen du GGk, Marxen ustezko azterketa psikologikoa egiteko, geroago, tesi doktoralesan, determinantea –ondorioa finkatzeko- izango den hausnarketa.

Nahi eta ezkoa dugu beraren sozial izaera ezagutzea, haren kontzientzia, hots, eskuartean darabilkigun prolemari buruzko haren teoria ezagutu ahal izateko.(MN 23)

Alde batetik, zera ikus daiteke hemen, GGk “sozial izaera” aipatzen du, eta bat batean, “haren kontzientzia”rekin identifikatzen du, lotura honen arrazoirik eman gabe.

Bestetik, Marxek, kontzientzia determinatzen duten “sozial izaera” hori, eta GGk erabili nahi duena, ez dut uste gauza bera direnik, Lehenengoan produkzio harreman, e.abarrekin loturik doan zerbaite delako, eta bigarreanean, psikologia sozialera hurbildu nahiko lukeen kontzeptualizazioa delako antza hartzen duelako.

Dena den, GGk egiten duen azterketa psiko- soziologiko horren oinarria, esan behar, ahula dela, ikerketa horretatik ondorio azpimarragarriak atera nahi badira bederen, zeren eta, lan osoa Marxen idatzietan soilik oinarritua dago, hau da, ez du Marxek idatzitako testuen, edo bidalitako karta pertsonalen, interpretazioa besterik egiten, eta hori gizaki baten perfil psikologikoa egiteko baliabide mugatua, murrizta da.

Baina, GGek, nik uste, ikerketa beste helburu batekin egiten duela, eta hor dago tranpa, aurretik suposatzen duen baieztapenera heltzeko egiten du, hots, marxek ez duela Herrigintzari buruzko sentsibilitaterik, eta beraz, bere teoria, logika horri jarraiki, ezin dela nazioaren –nazio zapalduen- aldekoa izan.

Ikus dezagun azterketa hau, kuriozoso da eta. Eta bide batez, ikus dezagun baita ere, bere garaian, GGri Begiarmenek (Paulo Iztuetak eta Jokin Apalategik), era zorrotzean, zorrotzegian, agian, egin zion kritika. (Sei Idazle plazara II).

Sei ideiatan kokatzen du Begiarmenek, Marxen perfila egiterakoan, GGek hartutako ildoak:

- Senideekiko hoztasuna,
- Adiskidetasun petrala
- Bihotz eta sentimendu gabea
- Halamoduzko moralekoa
- Erlijiorik gabea
- Mesianismoa

Eta garbi ikusten dela dio, guzti honekin, GGk Marx psikologikoki desekilibraturik dagoen pertsona bezala adierazi nahi duela.

Baina, zertarako nahi du GGk adierazi hau? Bere printzipioak zalantzan jartzeko. Baina hau, berriz ere, ez da zilegi, ez bahintzat, ikerketa zientifiko arrazionalaren aldetik. Hori garbi ikusten du Begiarmenek, GG kritikatzan duenean:

Egun nahiko hedatua eta modan dagoen psikologiazko metodoan oinarrituaz, GMGk Marxengan ikerketa lan luze eta sakonenen ondorio diren gizartearen jkabideari buruzko printzipio sendoenak, desekilibratu baten ideiatzat agertu nahi dizkigu.

Hala balitz ere, hots, Marx psikologia desekilibratuko gizona zela, alegia, haren printzipioen balioarekin nahiz ez-balioarekin, berez, ez luke zerikusirik.

Aitzitik, kontrakoa frogatzen ez den bitartean, balioko direla suposatzen den printzipio haien ez-balioa frogatzeko, printzipioen barne kontradikzioak agertu beharko lituzke. Klaru, GMGk egiten ez duena, noski. (SIP II, 84)

Ikus dezagun ideia bakoitza labur-labur

5.1.a.- Senideekiko hoztasuna: Marxen idatzi eta familiarekiko harremanak aztertzen ditu GGk, eta bi ondorio ateratzen, lehenik, Marxek bere guraso eta anai-arrebekin harreman gutxi eta hotzak dituela, harrotasunez eta “gaintasunez” jokatzan duela bere emaztearekin ere,

...Emazteak bizitza guztian zinez gurtzen baitu, bere “jaun eta nagusizat”() dauka eta maitekiro honela deitzen dio: “Zu, ene animako apez nagusi eta gotzain”(*) (MN 179)*

eta aldiz, senitartea berarekiko errespetuz, miresmenez, are maitasunez ari dela. Marxen izaera autosufizientea eta harroa azpimarratzen du.

...jakingarria da (alabak egindako galderari) hots, <<your favourite virtue in man>>, Marxek emandako erantzuna, hots, <<strength>> (MN179)

Marxek ezin jasan zuen bere aldamenean bere nagusitza onhar ez zezakeanik (MN 179)

5.1.b.- Adiskidetasun petrala: Marxen izaera harroak, bere lagunekiko ere arazoak sortzen dizkio. GGren ustez “nagusikoitasuna”k ez dio lagunik izaten uzten, Engels ezik, bera baino gutxiago sentitzen delako, hain zuzen ere.

Ez zen erraz Marxen adiskide luzaroan irautea. Bauer, Ruge, Prudhon, Bakunin, Lassalle, e.a. Marxen adiskide izan ziren. Baina, arrazoi batengatik edo bestengatik, guztiekin hautsi egin zuen eta guztiei iseka egin zien ohi zuen igurdiziz. (MN 34)

Engelsek bere adiskidea garaiagotzat jotzen duela ageri da beti. Marxek eginiko guztia ondo dago: hori salmo giro antzean behin eta berriz errepikatuko du; Bere adiskidearen lanarekin alderatzean berea kaxkarragozagutuko du (MN 35)

Eta GGk ematen du horren arrazoia, haren ustezko izaera psikologiko berezia, noski.

Dударик gabe bere pentsaera hotzak ukaezinezko garaitasuna ematen zion Marxi teoria mailan. (MN 35)

5.1.c.- Bihotz eta sentimendu gabea: Aurreko bi puntuen ildoak jarraituz, GGk Marx osoki arrazional (eta horregatik esango du geroago pentsamendu arrazionalista garatuko duela) gisa aurkezten du, sentimenduak bazterten dakien gizon hotz eta hausnarti bezala. Erabakiak hartzerako orduan ere, edo arrazoi politikoaz, edo interesak lortzeko jokatzeko du Marxek. Hortaz, edozein gaiez hunkitzen delako.

...garbi dakusgu, Marxen Alemaniara itzultzeko gogoa, bere politika zentzuak, hobekienik han jardun dezakeala esaten diolako dela. Tartean ez dago bihotzetiko arrazoirik (MN 54)

Eta horrekin loturik, bere herri-sentimendua ere hutsala da, hots, ez dauka sentimendu nazionalik.

Langileak egiazko herri-maitasuna sentitzen du, eta bere aberria maite duen pertona oro, maitakeriara lerra daiteke, nazionalismoan eta chauvinismoan erortzeraino. Ez langile, ez abertzale izan ez zen Marxek proletalgoari erasten dizkio bere bizi-sentimenduak. (MN 128)

5.1.d.- Nolabaiteko moralekoa: GGk Marxek moralaren gaia ez duela ukitu dio baina, haren jarrera erlatibistatzen dauka. GGk dio Marxentzat ez dagoela moral unibertsalik, gizarte bakoitzak bere moralak sortzen duela, eta, Marxen teoriarengandik hurbilago dagoena, moralaren gainegiturazko izaera, hau da, ongia eta gaizkiaren erabilera, boteretsuen esku dagoela, azpikoen zapalkuntzaren babesle.

GGk, orduan, Marxen azken garaiko komunismoan, horrelako moral berri bat egongo dela baieztatzen du, esplotaziorik ta mailarik gabeko gizartea babestuko duena.

Honek egonezin handia sortzen dio GGri, zeren eta berehala izugarritzko kritika egiten dio, “ad hominem” erara, hau da, arrazoitu beharrean, Marxen jokaera bera egurtuaz, haren bititako trapu zaharrak azaleratuaz.

Historia kontatzen du lehenik,

Bere aldetik ere izan zituen buruhausteak. Etxean zuten Helene demuth neskamearekin seme bat izan zuen. Gauzak estaltzeko Engelsek itxurak egin zitun, bera umearen aita balitz bezela. Izena ere Frederick eman zioten, eta ama hil zitzaionean Demuth abizena hartu zuen (MM 19)(...)

Gutxiren batzuk soilki zekiten egiaren berri. Semea ama ikustera joaten zitzaion eta ama jendearen aurrean bere umearen maitale bezala agertzen zan. Marx hilda gero jakin zuen Frederickek bere aita nor zan. MM20

Eta bere iritzia ematen du gero –pontifikatuaz, sententziatuaz-, nahiko itsuturik, Marxen arlo honi buruz ezer ulertu ez duenaren tankeran.

Marxek burgesiaren morala madarikatu oi zun, baina hemen burges guziak baino okerrago jokatu zuen. Kemena falta zitzaion aitaren lehendabiziko eginkizuna betetzeko. Gizadia alienaziotik atera nahi zuenak bere semea betiko alienatu zuen. (MM 20)

Bestela ez da ulertzen hemen GGk esaten duena: Burges guziak baino okerrago jokatu? Kemen falta? Aitatasunaren lehendabiziko eginkizuna? Semearen alienazioa? Oraingoan ematen du GGri subkontzienteak traizionatu egin diola, orain arte mantendu duen “neutralitatea” galduaz, eta asaldaturik agertuaz.

5.1.e.- Erlijiorik gabea: GGk baieztatzen du Marx beti, gazte gaztetatik izan zela atea. Baina, beretzat zentzugabea den jainkogabetasun horren arrazoiak aurkitzen saiatzen da. Noski, Marxen garapen psikologikoaren erruz. Marxek, bere jatorri judutarraren aurka egitearren, erlijio guztiekin apurtzen du, ateismora joaz.

Judaismoa zapuztekotan, bide oro egoki dirudio Marxi. Errazena, judaismoaren etsaien alderdira igarotzea zen... Kristau gizartea judaismoan urtu da, honen merkatari eta diru joeran (MN 40)

5.1.f.- Mesianismoa: GGk Marxi, “mesiastar” deitzen dio, proposatzen duen gizarte utopiaren ezintasuna azpimarratuaz. Marxen klaserik gabeko gizartea mito hutsa omen da, giza ekintzaz egunero ezeztatzen den mito.

Proletalgoaren herriartekoei zentzutik eta klaserik gabeko gizartea sortzeko duen mesiastar egitekotik, hauxe dariola uste zuten Marx eta Engelsek: Herriarteko etsaigoen gainditzea eta gorroto-haizeak kutsa ez lezakeen olimpotar mundu baten eraikitzea. Ederraren ederrezko mtoa, noski; baina giza-ekintzaz uneoro gezurtatua. (MN 108)

Harrigarria kritika, batez ere, kritikatzailea Jainkoaren sinestun, eta jesuita praktikantea izanik, hots, onartzen duena, frogarik gabe, dogmatikoki, betiereko zerua dagoela, eta gizaki guztiek zoriotsu izango direla eremu estralurtar eta ikusezin batean.

Halere, izatez, GGren kritikak badu zentzurik, zeren eta, lortezinezko utopia komunista hori lurrean lortu beharreko zerbait da, eta hori begi-bistakoa, ezingo da inoiz eman.

Azkenik, Marxen mesianismo hori kritikatzeko GGk “ad hominem” falaziarekin jarraitzen du, era larrian honen irudia ironiaz, mespreziatuaz:

Marx argibide argia dugu (...) proletalgoaren mesiastar patuaz jarduteko gauza direnak, burgesen eta hauen idazleen artean bakarrik aurkitzen direla jabetzeko: langile inoiz izan ez direnen artean, alegia; baizik eta burges izanik, azterketan eta idazten jardun ahal izan dutenak (MN 131)

Hau horrela, Gotzon Garatek Marxi buruzko profil psikologikoa eratzen du, gizaki hotza, sentimendu gabea, lagunik izateko kapaz ez dena, harroa, inmoral, erlijio gabe eta mesianikoa.

Zer espero dezakegu, pentsatuko du GGk, horrelako –Marx- pertsonaia batengandik?

5.2.- Marxen berezitasun biografiko-soziala

Badaude bi gai bereziki, Marxen biografian -eta nortasunaren eraikitzean, arlo psikologikora joanez – GGren ustez, eragin determinantea dutenak, eta, ondorioz, bere teoriaren garapena mugatzen dutenak. Marxen judutartasuna eta aberrigabetasuna dira.

Autore guztiak aipatzen digute, behin eta berriro, Marx judutar jatorrikoa dela. Haren bizitza jarraitzen badugu, ordea, laster ikusiko dugu Marxek ez zuela ezer jakin nahi jatorri horrekin, eta, izatez, alemantzat duela bere burua, garai horretan Prusiako estatua, Austriako estatua e.a. daudelarik.

Marx bera prusiarra da, bataiatua izan zen jaiotzerakoan, aitzak jadanik judu izateari uko egin baitzion, baina amak bai, jarraitu omen zuen bide hori.

Alabaina, bere gazteetariko ekintzaile-tasun politikoaren ondorio, Prusiako estatuaren jazarpena jasan behar izan zuen. Hasieran, Prusian bertan, “Rheinische Zeitung” aldizkarian erredaktore bezala ibili zenean; geroago Parisera erdi ihesik joan eta gero, hango agintariekin, Prusiako gobernuaren ordenaz itxuraz, arazoak izan zituen. Ondoren, Bruselasen, egoera beretsuan aurkitu zen.

Ez zioten bakean uzten, eta prusiartasunari uko egitea erabaki zuen, orduan, “aberrigabe” bihurtuaz. Paristik koloniarra, eta handik ihesi Londonen bukatu zuen. Han

egin zituen bere bizitzako urte asko, hil arte, baina bere aberrigabetasun hori mantendu zuen, itxuraz.

Bi gertaera hauek, GGren ikerketan, erabat indarturik ageri zaizkigu, eta ezinbestekotzat jotzen ditu, Marx-en pentsamendua –Nazioaren aurkako pentsamendua, sentsibiltate falta- ulertzeko.

Judutartasunari buruz, zera dio GGk Marxen Marxismoa liburuaren hasieran:

Marxek berak bere bizi osoan judutar konplejua izan zun eta beti ahaleginak egin zitun bere burua judutartzat ez agertzeko (MM 15)

Aberrigabetasunari buruz, zera dio GGk Marx eta Nazioa liburuaren hasieran:

Marxek aberrigabezia horretarako bidea, nolarebait bere arbasoek markatua zuen. Gauza koxkor baina mingarri batek, egundoko eragina emanen zion Marxen bizitzari. Ait´amen jatorriz, judutar arrazakoa da eta rabino familiakoa.

Begiarmenen kritikak, garbi atzeman zuen GGren ildoak zein zen:

Marx jaiokera beretik, hots, bere gurasoen sendiko ondaretik, aberria trabatzat hartzera determinatuta zegoela frogatu nahi digu GMGk. Eta zertarako entseiu hori? Gero, psikologiazko lege batzuren bidez, Marx aberri arazoea gaizki besterik ez zitekeela aritu ondorioztatzeke, noski. (SIP II, 85)

5.2.a.- Marxen jatorri judua, eta Marxen judutartasunetik ihes egin nahia, bizitza guztian izango zuen nahi sendoa, arazo astuna izan zen Marxentzat, GGren ustez, bere teoria guztia gerora determinatuko zuen gaia. Zergatik?, bada, bere ustez, alde batetik, judutarra izate horrek (ez izate nahi horrek) Aleman herritartasunaren sentimendua ahuldu zuelako Marxengan.

Marx ez zen inoiz judutarra sentitu, baina, aldi berean, eta horrexegatik, ez zen alemana ere sentitu, bere nortasun agirian Prusiarra zela jartzen bazuen ere.

...Karlen bihotzean ez da inoiz itsatsiko Prusiar aberriarenganako zaletasunik. Abertzaletasunezko aztarna baikorrik ez dugu topatuko harengan; bai ordea, ezezkorik: eginahal guztiak egingo ditu soldaduskari ihes egiteko, eta lortu ere, lortu egin zuen (MN 49)

Horregatik, GGren iritziz, Marxi ez zitzaion batere kosta herritasun horri uko egitea, baina hori ez da ikusten berak jarritako testuetan. Garbiki agertzen dena, ordea, jazarpen poliziala da, eta horren ondorio uko egiten diola herritasunari.

Horregatik, Prusiako estatuaren jazarpena izan zuenean, prusiar herritartasunari uko egin zion, apatrida bihurtuaz, hortik aurrera. Belgikara jo nuen. Baina han ere nire atzetik nuen prusiako errege gobernuak, erasoka. Beti, Prusiar nintzelako aitzakiaz (...) Belgikan ere, ni botatzeko eskabidea aurkeztu zuen (...) Nire aurkako bahi-agindua zela-eta, nire aberrira itzuli ezinik, nire

prusiar nazionalitatek erasoia besterik ezin nuen espero... Horregatik, beharturik nengoen nire aurka jarduteko bide hura moztera prusiar gobernuari, eta 1845ean nire prusiar herritasuna hausteko eskabidea egin nuen (MEW).

Marxek judutasunaren gaiari 1843an helduko dio, "Arazo juduari buruz"-ko lanean. Han garbi azaltzen du berarentzat zein den judutartasunaren esentzia: dirua pilatzeko egoismoa. Eta ez hori bakarrik, judutartasuna eta kristautasuna erkatzen ditu, bien naturazgaitzako esentzia ezeztatuaz, eta biak baltzuan daukatena kapitalismoari babesa ematea dela adieraziz.

Zein da berez judutar erlijioaren oinharria? Behar praktikoa, berekoikeria. Behar praktikoa eta berekoikeriaren jainkoa Dirua da. Hauxe da Israelen jainko ospetsua (MN 42)

Judutarren ametsezko nazionalitatea zera da: merkatariaren nazionalitatea, diru ametsetan bizi denarena. (MN 43)

GGk, beste autore batzuen lanak aipatuaz dio Marxek judutasun eta kristautasunaren arteko parekaketa hau ez dela inpartziala.

Horrela tirano bakoitzaren larruan judutar bat dagoela dakusagu, aita saindu bakoitzaren barruan jesulagun bat dagoenez (MN 44)

Eta egiten duten interpretazio psikologikoa zera da, judutarren aurkako jarrera, herri mesprezatuarekin daukan lotura ezkutatu nahia dela Marxengan.

Marxengan astuna omen zen judutartasun hori eraman ahal izatea, eta bere olerkietan ere hori islatu zen:

Esaterako,

Jainko batek ostu dit guztia.

Uztar pean ezarri dit guztia.

Eta zoritxarreko madarikazio pean.

Nire burua mundu guztiaren faltan, ororen faltan dakust.

Gauza bat geratzen zait: Mendekua. (MEGA)

5.2.b.- Marxen aberrigabetasuna.

Marx Treveris-en jaio zen, baina GGren iritziz, haren sustrai familiarrak, kanpokoak, ez zioten utzi, lur harekiko loturarik sakontzen.

Izan ere, aitaren aldeko familiaren jatorria Italiarra da, eta lehenago Poloniakoa, eta, ematen duenez, gainera, horren aurretik Bohemian bizi izandakoak omen. Amaren aldetik, Holandatik zetozen, baina Hungaria utzi eta gero, han kokatu zirela dio.

Marxen aita, Treverisko obispadoaren mendeko bezala jaio zen. Gero hiritartasun frantsesa izan zuen, Napoleonen inbasioaren garaian, eta azkenik, Prusiarra egin zen. Karl, hasieratik prusiarra da, baina, GGren ustez, ez zuen lortu bere aitak izan zuen Prusiarekiko lotura afektiboa.

Horregatik, Prusiako estatuak Marxekiko zuen jazarpeneko joera nekazina ikusita, atxilotu nahian ibili baitzen urte askotan (Paris, Brusela, Colonia) Marxek bere aberriarekin zituen lotura –juridiko-politiko- apurtzea bideratu zuen. Eta Apatrida egin zen.

Gotzon Garatek hemen egiten duen irakurketa harrigarria da, hots, esaten du beste exiliatu askok ere bazutela arazo hau, baina beste horiei, atzerrian egoteak, Marx-i ez bezala, abertzaletasuna pizten ziela. Marxen kasuan, ordea, ez zen hau gertatu.

Europa guztian zehar jasan zuen errepresioa, alde batetik, eta bestetik, sentimendu alemana ez zelako harentzat esanguratsua (*Halere, bere garaian, Poloniaren alde egin zuela ere kontuan hartu beharko litzateke.*) Marxek Prusiar izateari utzi egin zion.

Gotzon Garaterentzat, bere bizitzaren gertakizunen inguruan Marx judua eta ez-judua zen, kristau eta ez kristaua, alemana eta ez-alemana, eta nahaste horretan ez zuen garatu inongo aberriarekiko sentimendurik.

Eta orduan, Gotzon Garaterentzat, Marxek bere arazo pertsonal horri irteera filosofikoa eman zion, (eta hori naturala iruditzen zaio, beraz, frogatu beharrik ez duena) mundu osoa aberri bezala hartzea, alegia, ikuspuntu unibertsal edo nazioartekotasunezkoa bultzatuaz. Bernard Shaw aipatzen du GGk, berea baieztatzeko. <<Marx ez dut hartzen, ez alemaniar, ez beste herriko idazletzat. Burgesiaren aurkakoa zen>>.

6.- ONDORIOAK

Gotzon Garateren Tesian agertzen den bigarren zatia ez dugu aztertu lan honetan, eta hor kokatzen da Garatek, Marx-en teoriari buruz, hau da, Marxek nazioaren gaiari buruz esaten duenaren azterketa filosofikoa.

Azterketa honetan, hasiera hasieratik, Gotzon Garatek zera ikusten du, Marxek ez zuela gai hau era sistematikoan landu. Marxen nazioari, nazionalitateei, edo herriei buruzko pentsamenduak ez du garapen propiorik, eta hark dioena han eta hemen idatzitakoaren esaldi sakabanatuetan aurkitu behar da.

Gotzon Garaten lan handia hartu zuen, gaika Marxek zioena irakurtzeko (errusieraz, eta alemanez, zuzenean), bereizteko, eta, ondorioetan ikus daitekeenez, Garatek zera dio, Marx-ek ez duela Naziotasunaren gainean, eta herri zapalduetako buruzko gaiarekiko batere interesik.

Baina guk ikusi dugunaren arabera, Gotzon Garatek, jada, hori bazekien, hots, lehenago egin duen ikerketa psikologikoak horretara eraman baitu.

Hau horrela, ikerketa honen ondorio bezala, esan dezakegu, Gotzon Garatek bere aurreiritzia baieztatzeke egin duela ikerlana; hasieratik bazekiela emaitza: Marx, bai bere jatorriagatik, bai bizitzan zehar izandako baldintzengatik, psikologikoki desekilibratua da, nortasunaren eraikuntza berezia garatu du, sentimendu gabea, eta horrek nazioaren arazoa ulertzeko orduan determinatu egiten du. Marxek ezin du ulertu abertzaletasunaren auzia, sentimentala, irrazionala den heinean. Are gehiago, bere arazo pertsonala konpontzeko edo, internazionalismoaren teoria garatuko du, langile guztien aberri bakarraren teoria, alegia.

Bukatzeko, nik uste Gotzon Garateren ikerlana zintzoa izan zela, nahiz eta garaiko eskuineko eliteen mesedegarri izan zela ere norbaitek pentsa dezakeen.

Berak benetan nahi du argitu Marxek dioena, eta benetan nahi du ulertu Marxen teoria, honen eragin izugarriaz kontziente delako, eta Gotzonek baduelako sentsibilitate sozial-kristau bat, behartsuen alde egitera bultzatzen duena.

Hor ere, Gotzon Garateren aurreiritzi batzuek azaltzen dira, erlijioa nahiz jainkoaren sinesmenaren inguruan, Marxen ustezko “dogmatismoari” kritika, Marxen arrazionaltasun gaindiezinaren ideia, haren auresanen erruak e.a.

Hori guztia, eta gehiago, ikus daiteke tesiaren bigarren zatian, baina ikerketa hori beste noizbait egin beharko da.

7.- ANOTAZIOAK

(1) Hau Hasier Etxeberriarekin 2005ean egindako Elkarrizketan esaten du.

(2) Marxen Marxismoa liburuan, gaika sailkatuaz, autore hauek guztiak aipatzen ditu.

(3) *Sei idazle plazara I eta II* liburuetan, J. Apalategi eta P. Iztuetak, Begiarmen ezizena erabiliaz, sei idazleren idatzien inguruan azterketa “ideologikoa” egin zuten. (Michelena, Aresti, Larresoro(Txillardegi), Joxe Azurmendi, Gotzon Garate eta Gurutz Ansola ziren ikertuak)

(4) PNV eta ETAren arteko apurketari buruzko esaldiak J. Azurmendi “Honela aurkitu zen marxismoa” Jakin 1984

8.- BIBLIOGRAFIA

Azurmendi, Joxe.- “Honela aurkitu zen Marxismoa” , Jakin 1984, vol. 30, 7-25.or (MG)

Begiarmen (J. Apalategi, P. Iztueta) “Sei idazle plazara II” Jakin Arantzazu 1974 col.16 (SIP II)

Errialde (Mikel Atxaga) .- Gotzon Garateri elkarrizketa” Zeruko Argia 1972 (471.alea)

Etxeberria, Hasier.- "Gotzon Garaterekin berbetan" Jakin, 2006 (PDF online)

Garate, Gotzon.- “Marxen marxismoa” Etor ed. Mensajero Bilbao 1971 (MM)

“Marx eta nazioa” Etor ed. Mensajero Bilbao 1972 (MN)

“Karl Marx y los nacionalismos separatistas” G.G.ed. Bilbao 1974 (MNS)

Garate, Roman.- “ Angelmari- Gotzon Garate” Rev. int. estud. vascos. 54, 2, 2009, 551-565

Kalzakorta, Javier.- “ Gotzon Garate, euskalari eta idazle” karmel 2009 (PDF online)

Lendinez, Ainhoa.- “ Gotzon Garate” Barren 2008 (PDF online)